Lagundu Getxo hobetzen
Ayúdanos a mejorar Getxo

Getxo
bizi ezazu

# PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS EN GETXO






https://zeugaz.getxo.eus

#zeugaz

## ¿Qué es el PRESUPUESTO MUNICIPAL?

El presupuesto municipal es el plan económico y financiero anual con el que va a poder llevar a cabo sus acciones el Ayuntamiento y sus organismos autónomos. Se trata de una herramienta clave para desarrollar la gestión pública que se plasma en las actuaciones municipales. Tiene carácter anual y contiene las previsiones de ingresos que se esperan obtener, así como los gastos que se prevén realizar.

Los ingresos proceden de Udalkutxa ***(Fondo Foral de Financiación Municipal de la Diputación de Bizkaia)***, de los impuestos directos e indirectos, de las tasas, de las transferencias de otras instituciones, de las operaciones financieras, de los ingresos de capital y de los patrimoniales.

## ¿Qué son los PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS?

El Ayuntamiento de Getxo establece **1.000.000 de euros** de su partida presupuestaria anual para este concepto. A través del presupuesto participativo se busca la implicación de la ciudadanía en las cuentas públicas. El fin es que la ciudadanía pueda realizar propuestas para que ese millón de euros se conviertan en realidades.

## ¿Qué NORMAS han de cumplirse? ¿Qué TIPO DE PROPUESTA puedo presentar?

- Tiene que ser de competencia del **Ayuntamiento de Getxo.**
- Tiene que ser de **interés general** y servir al interés de toda la ciudadanía *(*la propuesta tiene que buscar el bien de todo el municipio, de un colectivo amplio y no perseguir intereses particulares ni privados*)*.
- Tiene que financiarse en el **ejercicio anual presupuestario** objeto del proceso participativo.
- Tiene que ser **viable** en cuanto a los recursos técnicos, jurídicos, económicos y humanos para que pueda ser desarrollada.
- Tiene que ser **concreta**, evaluable económicamente y plantearse en términos comprensibles.
- **No se pueden solicitar ayudas** económicas, subvenciones, becas, premios o contrataciones de personal.
- **No se tiene que haber ejecutado** o que se esté ejecutando a través de otros proyectos municipales, de cualquier área u organismo autónomo o que ya haya sido aceptada y/o ejecutada en anteriores presupuestos o procesos participativos.
- No debe de tener contenido ilegal y no ser difamatorio o discriminatorio, y tiene que **respetar el marco jurídico y legal existente**.



https://zeugaz.getxo.eus

## ¿Cómo puedo participar
## EN LOS PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS DE GETXO?

Las vecinas y vecinos del municipio pueden presentar sus propuestas sobre cómo emplear una parte del presupuesto municipal **a través de los formularios en papel que llegan a los buzones de las viviendas o a través de la plataforma zeugazgetxo.eus.** Siempre teniendo en cuenta las directrices marcadas.

De todas las propuestas recibidas se establece un listado de proyectos que han de priorizarse por la ciudadanía. Se tienen que valorar todos los proyectos, con el objetivo de que se piense en Getxo como conjunto, en todo el municipio.

Finalmente, los proyectos que más votos obtengan, hasta llegar al 1.000.000 de euros, se incorporarán al Presupuesto Municipal del año siguiente para su realización.

**IMPORTANTE:**
Los presupuestos participativos NO SON para realizar avisos, quejas o sugerencias. Para ello existen varios canales, durante todo el año, como acudir a las Oficinas de Atención Ciudadana de Algorta o Las Arenas, así como la sección de Avisos, Quejas y Sugerencias de la página web municipal www.getxo.eus.

Getxo
bizi ezazu






#zeugaz




# ALGUNOS PROYECTOS

## que se han realizado gracias a las aportaciones ciudadanas en los Presupuestos Participativos:

**1*** Se ha elaborado una **guía de Recursos y Servicios** para las personas mayores.

**2*** Se han mejorado los **itinerarios peatonales** entre Aiboa y Alango. Y se ha instalado un **ascensor** que une la estación del metro de Aiboa con la parte alta de Neguri-Algorta.

**3*** Se ha acondicionado el **parque** Genaratxu del Puerto Viejo y se ha instalado un **ascensor** que conecta el parque con la explanada del Puerto.

**4*** Se ha mejorado la **seguridad del paso de peatones subterráneo** de Villamonte, renovando la iluminación, sellando y pintando el techo y acondicionando el paso.

**5*** Se ha puesto en marcha una campaña publicitaria de sensibilización y **promoción de la economía local** llamada "Lo importante siempre a mano".

**6*** Se ha realizado un **festival de artes** de calle "Kalefest" acercando al público casi una treintena de espectáculos y actividades, dirigida principalmente a público joven, fomentando y socializando el euskera.

**7*** Se ha realizado la campaña "¿Eres feminista?", **iniciativa divulgativa** de calle sobre los feminismos. Su objetivo: informar sobre la situación del feminismo, la necesidad de transformar la realidad para avanzar en igualdad y de la importancia de seguir luchando contra la violencia machista.

**8*** Se han mejorado los **baños públicos** en la zona del Molino de Aixerrota y junto a la playa de La Bola, en el Paseo del Muelle de Las Arenas.

Getxo
bizi ezazu

https://zeugaz.getxo.eus

Lagundu Getxo hobetzen
Ayúdanos a mejorar Getxo

Getxo
bizi ezazu

# GETXOKO PARTE-HARTZE IZAERAKO AURREKONTUAK




https://zeugaz.getxo.eus

#zeugaz



## Zer da UDAL-AURREKONTUA?

Udal-aurrekontua udalak eta bere erakunde autonomoek beren ekintzak gauzatzeko erabiltzen duten urteko ekonomia- eta finantza-plana da. Kudeaketa publikoa garatzeko funtsezko tresna da, zeina udal-jarduketetan islatzen baita. Urtekoa da eta urtean lortzea espero diren diru-sarrerak eta aurreikusten diren gastuak hartzen ditu barne.

Honako jatorri hauetatik datoz diru-sarrerak: Udalkutxa (**Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Finantzaketarako Funtsa**), zuzeneko eta zeharkako zergak, tasak, beste erakunde batzuen transferentziak, finantza-eragiketak, kapitaleko eta ondareko diru-sarrerak.

## Zer dira PROZESU PARTE-HARTZAILEAK?

Getxoko Udalak **1.000.000 euro** bideratzen ditu bere urteko aurrekontuko partidan aipatutako kontzepturako. Parte-hartze izaerako aurrekontuaren bidez, herritarrek kontu publikoetan parte hartzea nahi da. Helburua da milioi bat euroko zenbatekoa erabiltzea herritarrek egindako proposamenak egi bihurtu daitezen.

## Zeintzuk dira bete beharreko ARAUAK? Zer MOTATAKO PROPOSAMENAK aurkez ditzaket?

- **Getxoko Udalaren** eskumenekoak izan behar dira.
- **Interes orokorrekoak** eta herritar guztientzat interesgarriak izan behar dira (proposamenak udalerri osoaren ongizatea lortzea izan behar du helburu, kolektibo handi batena, eta ez interes partikularrak edo pribatuak asetzen saiatzea).
- Prozesuaren xede den parte-hartze izaerako prozesuari buruzko **urteroko aurrekontu-ekitaldian** finantzatu behar dira.
- Proposamenak **gauzatu** daitezen, bideragarriak izan behar dira baliabide tekniko, juridiko eta ekonomikoei dagokienez, bai eta giza baliabideei dagokienez ere.
- **Zehatzak** eta ekonomikoki ebaluatu ahal direnak izango dira, eta era ulergarrian planteatuko dira.
- **Ezin izango da laguntza** ekonomikorik, dirulaguntzarik, bekarik, saririk edo langileen kontratazioriк eskatu.
- Proposamenak **gauzatu gabe egon beharko dira** eta ez dira beste udal proiektu batzuen bidez edo beste edozein arlo edo erakunde autonomoren bidez gauzatzen ari izango, ezta aurreko aurrekontuetan edo parte-hartze izaerako prozesuetan onartuta eta/edo gauzatuta egongo ere.
- Proposamenen edukia ez da legez kanpokoa, iraingarria edo aztertzailea izango, eta dagoen **legeesparru juridikoa errespetatuko du**.

## Nola hartu dezaket parte GETXOKO PARTE-HARTZE IZAERAKO AURREKONTUETAN?

Udalerriko herritarrek udal-aurrekontuaren zati bat zertara bideratu behar den adierazteko proposamenak aurkeztu ditzakete **bai etxeko postontzietara helduko diren paperezko inprimakien bidez, bai zeugazgetxo.eus plataformaren bidez**. Betiere ezarritako gidalerroak bete beharko dituzte.

Jasotako proposamen guztiak oinarri hartuta, proiektuen zerrenda bat egingo da, herritarrek lehenetsi ditzaten. Proiektu guztiak baloratu behar dira, Getxo oro har -udalerri osoa, alegia- erdigunean jartzeko xedearekin.

Azkenik, boto gehien jasotzen dituzten proiektuak, 1.000.000 euroko zenbatekora heldu arte, hurrengo urteko udal-aurrekontuan sartuko dira, gauzatu daitezen.

**GARRANTZITSUA:**
Parte-hartze izaerako aurrekontuak EZ DIRA abisuak, kexak edo iradokizunak egiteko. Urtean zehar hainbat bide daude horrelakoak aurkezteko, hala nola Algorta edo Areetako herritarren arretarako bulegoak eta udal-webguneko (www.getxo.eus) abisu, kexa eta iradokizunen atala.

Getxo
bizi ezazu






#zeugaz




## Parte-hartze izaerako aurrekontuetan herritarrek egindako ekarpenei esker egin diren PROIEKTU BATZUK:

**1*** Adinekoentzako **baliabide eta zerbitzuen gida** egin da.

**2*** Aiboa eta Alango arteko **ibilbideak** hobetu dira. Eta Aiboako metro-geltokia Neguri-Algortako goiko aldearekin lotzen duen **igogailu** bat jarri da.

**3*** Portu Zaharreko Genaratxu **parkea** berregokitu da, eta parkea eta portuko zabalgunea lotzen dituen **igogailu** bat jarri da.

**4*** Villamonteko lurpeko **oinezkoentzako pasagunearen segurtasuna** hobetu da; izan ere, pasabidea berregokitu da, sabaia zigilatu eta margotu da, eta argiztapena hobetu da.

**5*** "Garrantzitsuena beti eskura" izeneko publizitate-kanpaina martxan jarri da, **tokiko ekonomia sustatu** eta horren inguruan sentsibilizatzeko.

**6*** Kaleko **arte-jaialdia** egin da, "Kalefest" izenekoa; horren bidez, hogeita hamar bat ikuskizun eta jarduera eskaini dira, bereziki gazteei zuzendutakoak, euskara sustatu eta gizarteratze aldera.

**7*** "Feminista zara?" izeneko kanpaina egin da, feminismoak jorratzen dituen kaleko **dibulgazio-ekimena.** Hauxe zen helburua: feminismoaren egoeraren berri ematea, berdintasunean aurrera egin ahal izateko errealitatea eraldatzeko beharra jorratzea, eta indarkeria matxistaren aurka borrokatzen jarraitzeko garrantzia aztertzea.

**8*** Honako **komun publiko** hauek hobetu dira: Aixerrota errota inguruan daudenak, Bola hondartzakoak, eta Areetako kaiaren pasealekukoak.

Getxo bizi ezazu

https://zeugaz.getxo.eus